



2017ko ekaina

AURKEZPENA

Zure aurrean daukazu Ziklotekaren lehen buletina. Zikloteka dokumentazio zentro bat da, bizikleta bidezko mugikortasun arloan espezializatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Cristina Enea Fundazioaren artean sortua. Espazio fisiko eta birtual bat da, bere dokumentu-funtsetako dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen duena, eta funts horietan artxibatutako dokumentazioa iristen laguntzen duena, askotariko dokumentazioa: dokumentazio idatzia, grafikoa eta ikus-entzunezkoa, bai eduki tekniko-administratibokoa bai izaera zientifiko, dibulgatzaile edo erreibindikatzailea duena. Zikloteka 2016. urtearen hasieran ireki zen jendearentzat, Ingurumen Baliabideen Zentroan (Cristina Enea Parkea, Donostia).

Haren dokumentu-funtsak hainbat erakunde eta pertsonaren lankidetzak eta ekarpenen emaitza dira: Foru Aldundia bera, udalak, unibertsitateak, kolektiboak, eta partikularrak. Espazio fisiko bat ez ezik, non dokumentazioa kontsulta daitekeen,

tresna informatiko bat ere prestatu da dokumentuak biltegiatu eta kudeatzeko; horrela, dokumentu-funts guztiak Internet bidez kontsulta daitezke, horretarako diseinatutako webgune baten bitartez, zeinak **bilaketa-tresna** bat baitauka eta aukera ematen baitu dokumentazio digitalizatua linean jaisteko.

Buletin honekin, seihilabetekaria izateko asmoa duelarik, Ziklotekak eskaintzen dituen dokumentazioko eta ezagutzako aukerak partekatu eta ezagutarazi nahi ditugu. Alabaina, laguntza ere eskatu nahi dizugu, dokumentuak, bideoak, kartelak eta abar ekar ditzazun, bizikletari buruzkoak –joan-etorrietarako baliabide gisa hartuta–, beharbada zuk zeuk daukazunak edo badaudela dakizun horiek.

Telefonoz deitzen badiguzu, edo posta elektronikoko mezu bat bidaltzen badiguzu, pozarren hartuko zaitugu, zuk daukazun informazio edo dokumentazio hori erkatzeko, eta Ziklotekako dokumentu-funtsetan egon daitezkeen haren eskuragarritasun moduak hitzartzeko.

MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DIPUTATU MARISOL GARMENDIAREN AGURRA.



“Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroak, Ziklotekak, urte bat bete du abiatu zenetik, eta balantze ezin baikorrago batekin egiten du urtea. Nazioarte mailako erreferente bat da, ez baitago antzeko adibiderik Europan, hain funts beterik duenik, bizikletaren munduaz eta bizikleta bidezko mugikortasunaren munduaz.

Zikloteka, zeina baita Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak partekatutako proiektu bat, ate ireki bat da, ezagutzari

iriekia, baita askotariko trukeari ere: proiektuak, esperientziak, bizipenak eta apustu instituzionalak; baita bizikletaren kultura sustatzen egunero lanean aritzen diren sektore, elkarte eta herritar eragileenak ere. Hori da gure apustu irmoa ere, eta Zikloteka da konpromiso horren parte nagusia.

Denon artean lan egin behar dugu dokumentazio zentro hori handitzeko, zeren eta, informazio espezializatua hobetuz, eta herritarrei horretarako irispidea emanez, laguntzen baitugu jendarteratzen, sendotzen eta kontzientziatzen bizikletaren erabileraz eta bizikleta bidezko mugikortasun iraunkorraz, zeina indarrez hazten ari baita Gipuzkoan. Zikloteka, beraz, informazioko eta kontsultako plataforma fisiko eta birtual bat da, familia handi bat sortzera deitua, komunitate handi bat, txirrundulariena eta bizikletazale sutsuena, ziklotekazaleena, alegia. Zorionak lehen urtebetetze honetan, eta urte askotarako!

DOKUMENTU HAUTAKETA

Gaur egun, 3.000 dokumentu-piezatik gora dira gure datu basean biltegitatuta daudenak. Jarraian, adibide gisa, han aurkitu eta jaisi ditzakezun dokumentuetako batzuen erreferentzia labur bana aurkezten dugu:



Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia 2014-2022

Gipuzkoako Foru Aldundia.
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturarako Departamentua.
Zuzendaritza teknikoa: Edorta Bergua Jiménez.
Egilea: Equipo de Gea21 S.L.
2015eko martxoa.

Dokumentuak, bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, Gipuzkoarako politikaren ibilbide-orria jasotzen du, bere baitan hartuz bizikletaren erabilera susta dezaketen hainbat arlo, ibilgailu motordun pribatuaren gehiegizko erabileraren alternatiba nagusietako bat bihurtzeko asmoz.



Bizikletaren udal gidaliburua. Nola garatu bizikleta bidezko mugikortasunerako politika lokalak

Gipuzkoako Foru Aldundia.
Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketara Departamentua.
Zuzendaritza teknikoa: Edorta Bergua Jiménez.
Egilea: Alfonso Sanz Alduán, Manu González Baragaña.
Lehen edizioa: 2015.

Gidaliburua bizikleta bidezko mugikortasunaren oinarri teorikoak jasotzen ditu; nola kokatzen den mugikortasun jasagarrian; eta, esperientzia jakinak ere aurkeztuz, esku-hartze publikoa alor horretan egituratzeko ardatzak aztertzen ditu, baita udal mailan egin daitezkeen jarduketara ugariak ere.



Denontzako kaleak. Oinezko eta txirrindulariei zuzendutako hobetze-jarduketara berritzaileak edota kostu txikikoak egiteko gida

Eusko Jaurilaritza. Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Udalsarea21.
Proiektuaren zuzendaritza: Legazpiko Udala.
Egilea: Gea21, S.L.
© Udalsarea21, 2016ko iraila.

Gidak espazio publikoaren berreskuratzeari buruzko gogoeta-elementuak ekartzen ditu, baita pertsona guztientzako erabilera orokorrari buruzkoak ere, eta erdigune bihurtu nahi dituen hainbat neurri, edo kostu txikikoak direnak edo berritzaileak direnak edo esku hartzeko bide berriak edo gutxi erabiliak irekitzeko gai direnak.



Kalapie. 25 urte pedalei eragiten hiri aldatzeko. 1989-2014

Alfonso Sanz Alduán.
Kalapie. Hiriko Txirrindularien Elkarte.
2014.

2014ko azaroan, Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkarteak 25 urte bete zituen. Liburuan, kolektiboaren historia jasotzen da, Donostiak jasan duen hiri-eraldaketarekin erlazionatuta.



Guía para la instalación de aparcamientos para bicicletas

IDAE Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía.
Euskarri teknikoa: Bicicletas Club de Catalunya (BACC).
Lehen edizioa: 2009.

Bizikletentzako aparkaleku modalitate desberdinen eta espazioari egokitzeko dituzten baldintzapenen errepeaso bat.



Life+ Respira proiektua

Nafarroako Unibertsitatea ©.
Europar Komunitateko LIFE tresna finantzarioaren ekarpenarekin .
2014.

Life+ Respira (2014 - 2017) proiektuaren helburu nagusia da frogatzea murriz daitezkeela hirian bizikletaz eta oinez dabiltzan pertsonen hiriko kutsatzaile atmosferikoen aurrean duten esposizioa. Horretarako, ordea, teknologia berriak aplikatzen dira, baita beste neurri batzuk ere, zerikusia dutenak hirigintzako plangintzarekin, hiri diseinuarekin eta mugikortasunaren kudeaketarekin.



Hegoak oinetan daude. Nerabeak, mugikortasuna eta espazio publikoa. Hezitzaile eta begiraleentzako gida praktikoa ↓

Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentua. Lanaren zuzendaritza teknikoa: Edorta Bergua y Xabier Ximenez. Erredakzioa: Marta Román (gea21 SL). 2015.

Nerabearoa dugu etorkizunean iraungo duten mugikortasun ereduak finkatzen diren garaia. Gidan, hainbat gomendio jasotzen dira, gazteei zuzendutako sustapen programek beren edukietan kontuan hartu eta jaso dezaten bizikleta bidezko mugikortasun iraunkorra.

ALBISTEAK

Gaur egun, fondo dokumentalean 3.021 dokumentu daude eskuragai, gehiengo formatu elektronikoan eskuratu daiteke. 452 dokumentu paperean eskuragarri daude publikoarentzat (liburuak, aldizkariak, azterketak, informeak etab.), eta hauetatik, 282 formatu digitalean daude. Gainontzekoa, dokumentu elektronikoak, bideoak eta abar dira; web erreferentzia (html) interesgarriak ere artxibatzen hasi gara.



Barómetro de la bicicleta en España. 2015 ↓

GESOP, Gabinet d'Estudis Socials i Opinió Pública, S. L.

Dokumentuak Bizikletaren barometroa Espainian izeneko dokumentuaren bosgarren edizioaren emaitzak aurkezten ditu, Bizikletaren aldeko Hirien Sareak editatua baita, eta Espainiako herritarrek bizikletaren inguruan dituzten iritziek, ohiturek eta erabilerek izandako bilakaera aurkezten du, baita bizikletarekiko dituzten beharrak eta eskariak ere.

AGENDA

Irailaren 16tik 22ra:

Mugikortasunaren Europar Astea, aurten, goiburu honekin ospatuko da: "Mugikortasun garbia, partekatua eta adimentsua". Oraingo honetan, EBk azpimarratzen duenez, garraioa partekatzeko moduak erabilita, gure gastuak murriztu ditzakegu, eta gure karbono-aztarna ere bai. Partekatzeak ere bidea ematen du garraio motak errazago nahasteko: gidatzea, txirrindularitza, eta garraio publikoa. Dena da posible, partekatzen denean. Eta onena da jende berria ezagutu daitekeela, eta gizartekoiago bihurtu bidaia.

BIDEOAK



Gipuzkoa tv. Gipuzkoako Bideoteka ▶

Gipuzkoako Foru Aldundia.

La Zikloteka también alberga en sus archivos vídeos relacionados con la movilidad ciclista. En este primer boletín, recogemos la bideoteka de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoa tv, un canal donde se pueden visualizar diferentes actuaciones forales en el ámbito de la movilidad ciclista, incluidos con detalle recorridos por los bidegorris de la Red Foral.

Azaroaren 30ean, Donostian:

Mugaz gaindiko jardunaldiak, bizikleta bidezko mugikortasunari buruzkoa (Ederbidea proiektua). Jardunaldi horiek bizikleta bidezko mugikortasunaren mugaz gaindiko Ederbidea proiektuaren esparruan gauzatuko dira, eta helburutzat dute teknikariak, arduradun politikoak eta herritar interesdunak sensibilizatzea joan-etorriak oinez eta bizikletaz egitea toki mailan sustatu beharraz; aldi berean, banakako motordun mugikortasuna murrizten baita.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa
Mandasko dukearen pasealekua 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia:

Astehenetik larunbatera: 09:30etik 13:30era / 15:00etatik 20:00etara (neguan, 19:00ak arte).
Igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 13:30era

